

## Zona Reyna

# Hezkuntza herritarren esku

### Zona Reyna (Quiché) Guatemala:

Herrialdeko eremu honetako biztanle gehienak maiak dira, muturreko pobrezia-egoeran daude, eta landako toki sakabanatu eta zailetan bizi dira. Egungo egoera ekonomikoak, emigrazio handia eragin du, bai hiribururantz (Guatemalako Hiria), bai beste herrialde batzuetarantz. Hezkuntzaren arloan, eskaintza txikia dago eta ia ez dago hizkuntza maia ama-hizkuntza gisa duten haurrei eta nerabeei arreta eskaintzeko prestakuntza egokia duen irakaslerik. Orain arte, arreta modu prekarioan eskaini izan dute behar bezalako ezagutzak edo baliabideak izan ez dituzten irakasleek eta beste eskualde batzuetatik iritsitako hezkuntza-sustatzaileek.



**Dokumental txiki hau ikusi ondoren, dokumentalaren inguruko jarduerak gauzatzera animatzen zaituztegu.**

## Ama Hizkuntzaren garrantzia

«Batu ditzagun indarrak hizkuntza-aniztasuna eta eleaniztasuna mundu hobe bat eta guztiontzako bizitza duinago bat eraikitzeko helburuarekin ahaleginak batzeko oinarritzko elementu gisa».

*Idazkari nagusiaren mezuaren laburpena,  
Ban Ki-moon*

MGHren proiektua martxan jarri arte zeuden arazoetako bat hizkuntza zen.

Zure ustez, zergatik zen arazo bat?

Badakizu zer hizkuntza hitz egiten zen munduko eremu honetan?

Munduan dauden hizkuntza ugari buruz ikertzen animatzen zaituztegu, baita Arriskuan dauden Hizkuntzen Proiektuaren bitartez gainditzeko saiatzen diren arazoak ezagutzera ere: <http://www.endangeredlanguages.com>

Eta hemen duzue Zona Reynan hitz egiten den Hizkuntza Maiari buruzko informazio gehiago:

<http://www.endangeredlanguages.com/lang/quc>

Era berean, esteka honetan hizkuntza horri buruzko informazio gehiago aurkituko duzu:

<http://www.proel.org/index.php?pagina=mundo/amerindia/mayense/quiche>

UNICEF, ama-hizkuntzaren nazioarteko egunari buruz:

<http://www.un.org/es/events/motherlanguageday/>



**Jarduera: Otsailaren 21ean AMA HIZKUNTZAREN NAZIOARTEKO EGUNA** ospatzen da. Zuen eskolan munduko hizkuntzaren bati buruz ikertuz ospa dezazuela proposatzen dizuegu, eta horretarako, Kultura-arteke jai bat egiten saia zaitezke, eta bertan, hizkuntza bat ez ezik, norbere kulturak esan nahi duen guztia ere azter dezakezue: folklorea, gastronomia, tradizioa, ipuinak, legendak, jantziak.

**Proposatutako maila: ziklo guztiak, irakasleek ikerketa-jarduera guztiak egokituz.**

# Zona Reynan sakontzeko

2009tik PRODESSAK eta Mugarik Gabeko Hezkuntzak/Educok Zona Reynan hezkuntzaren kalitatea hobetzeko babes-prozesua bultzatu du Uspantángo udalerrian, El Quiché departamentuan. Gaur egun prozesu honek irakasleen hasierako prestakuntza barne hartzen du, baita hezkuntza-arreta eta Kultura-arteko Hezkuntza Elebidunaren sustapena ere lehen hezkuntzako eskoletan eta oinarritzko mailako institutuetan.

Zenbat quiché hiztun daude?

Zer da Popol Vuh delakoa?

Nor dira Hunahpú eta Ixbalanqué eta zer bihurtu ziren?



**Jarduera:** Quiché kulturako elementu garrantzitsu hauek aztertu ondoren, oso KOMIKI berezi batzuk irakurtzea proposatzen dizuegu. Komiki honen helburua umeei eta gazteei maien kosmoikuspegia eta historia ezagutzera ematea da. Marrazki moderno batzuekin, Komikia tresna gisa erabiliz historia ezagutzeko modu ona da.

**Komikia ikusi:** <http://lasaventurasdelpopolvuh.com/cap1.html>

**Proposatutako maila: Bigarren hezkuntza**

## Per quatre cantonades de res (Jérôme Ruillier Editorial Juventud)

**Ipuinaren gaia:** desberdina


**Proposatutako maila: HAUR HEZKUNTZA / LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOA**

**Ipuina Youtube-n:**

[http://www.youtube.com/watch?v=DBjka\\_zQBdQ](http://www.youtube.com/watch?v=DBjka_zQBdQ)

**Jardueran zehar landuko diren edukiak**

- Desberdinaren integrazioa.
- Eskola komunitatearen aurrean irekitzea.
- Askotan umeei zailtasunak dituztela edo hainbat arrazoiren ondorioz ezin direla eskolara joan ikustea (besteak beste, ezin dutelako beren ama-hizkuntzan eskolarik jaso eta ondorioz ezin dutelako ikasi).



**Proposatutako jarduerak:** Laukitxo ezin zen bere adiskide biribiltxoekin jolastera sartu, etxe handiaren atea biribila zelako eta Laukitxoren izkinek talka egiten zutelako. Aldatzen ahalegintzen zen, baina arazoa ez zen bera, atea baizik.

Horma-irudi handi bat margotzea proposatzen dizuegu, ate erraldoi bat marraz dezakezue paper-zati jarraitu batean, gehien gustatzen zaizuen guztia erabiliz; adibidez: jatea, jolastea, dantzatzea, kantatzea. Klasean ziurrenik beste toki batzuetako umeei egongo dira, beharbada gehien gustatzen zaizkien jokoak kontatu ahalko dizkigute, beren ama-hizkuntzan abestiren bat kanta dezakete.

# El Tz'ultak'a bizirik dago

(Solidaritate Koodernoak Kultura-artekotasuna Mugarik gabeko Hezkuntza)

**Ipuinaren gaia:** Beste bizimodu batzuk eta beste kultura batzuk ezagutzea, besteen balio moralak, sozialak eta etikoak errespetatuz.

**Proposatutako maila:** LEHEN HEZKUNTZA

**Ipuina deskargatu:**

<http://www.educacionsinfronteras.org/files/759146>

**Jardueran zehar landuko diren edukiak**

- Elkartasun eta lankidetzeta jarduerak eta ohiturak garatzea.
- Bizitza eta pertsonen arteko bizikidetzeta zuzentzen dituzten oinarriko balioak balioestea eta horri jarraiki jardutea.



**Proposatutako jarduerak:** Jarduera honetan, ahal bada plater tipiko bat prestatzea proposatzen dugu. Kasu honetan, "tortilla" k egin genitzake. Jarduera honetarako, dagoeneko uretan dagoen latak artoa lortu behar da. Lehenengo urratsa azala kentzea da. Jarraian, artoa arrabolarekin eho behar da. Lortzen den orearekin, bolak egin behar dira opilak edo "tortilla" k egiteko. Bukatzeko, plantxa bero batean txigortu eta gehiegi hoztu baino lehen jan behar dira.

Jarduera hau ezin bada berriro gauzatu, ipuinean bertan hainbat jarduera jaso dira irakasleak egoki ditzen.